# BERRIGARA

1. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, azaroak 28



## Gune arkeologikoak

# Lur azpiko altxorrak

ALFA ROMEO
FIAT Autoberezi
ORAIN BERGARAN
AMILLAGA 1. TF.: 76 19 45
Alfa Romeo


VENTANAS
SAN MIGUEL
Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate
Zure ongizatea babesteko gaude
SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).
NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.
EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.
AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.
30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.
VENTANAS
SAN MIGUEL


EZ GALDU DETAILERIK.
ALDA ZAITEZ VARILUX®era
P. MANSO
Optika
OPTIKARI OPTOMETRISTA
IRIZAR,2 TF. 76 27 86
CIONEK ZURE KONFIDANTZA SARITZEN DU
Eros itzazu Varilux® lenteak CIONE Taldeko optika batean eta eraman ezazu bidaia-set hau.
CIONE
Optika taldea
BEZEROARENTZAKO
HARRERA ZERBITZUA
900 50 60 60
VARILUX®
ESSILOR LENTE BAT
Eskatu CIONE txartela eta ordaindu erraz

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
76 03 97
Faxa: 76 29 77

Argitaratzailea:
ARDUN Elkartea
Zuzendaria:
Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Maketazioa:
Iñaki Iturbe
Publizitatea:
Kristina Romero
Harpidetzak:
Gorka Elortza
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Xenpi Laskurain
Alex Labaien
Erredakzio kontseilua:
Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Komikiak:
Aitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Azkarate
Banaketa:
Txantxangorri taldea
Tirada:
00 ale.
Inprimategia:
Artu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
Copyright:
BERRIGARA
Lege gordailua:
50/91
ISSN:
0-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

# LUIS MARI BELASTEGI

## *Pertxa elkarteko kidea*



**- Gabonetako ekitaldietarako Orfeoiaren grabazio zaharrak lortu dituzue.**

- Bai, Orfeoiak aspaldi emandako bi kontzerturen bideo emanaldiak izango dira Pertxan abenduaren 26 eta 30ean herritar guztientzat. Bergarako Orfeoiak TVEko Orkestarekin emandako bi kontzerturen irudiak ikusi ahal izango dira, Haendelen "El Mesias"ekoa (1969an Cuencan grabatutakoa) eta "Israel en Egipto" (1973an Madrilen izan zena) lanekoak hain zuzen. Luis Elorza Pertxako presidentea Orfeoiko kidea zen orduan eta berak planteatu zuen grabazio horiek TVEri eskatzeko ideia. Karta bat bidali genuen eta handik hiru hilabatera erantzun ziguten. 40.000 pezetaren truke hiru bideo eskuratu ditugu.

**- Gabonetako programazioa zerekin osatuko duzue?**

- Pertxako bazkide eta lagunentzat herrian izan diren hainbat kontzertuetako emanaldiak izango dira 27 eta 29an eta urtarrilaren 2an eta 5ean; horrez gain, karta txapelketak, bazkideen afaria eta bazkideen emazteen afaria.

***"Duela 25 bat urte TVEk Orfeoiari grabatutako emanaldien irudiak eskainiko ditugu Pertxan"***

I T U R R I O N E T I K

## Eguberri gauean jaialdia izango da Jam aretoan

Gabonen inguruan izango den programazioaren barruan, abenduaren 24ean jaialdia izango da Jam aretoan. Iaz Eguberri gauean Amillagako aretoak ateak zabaldu zituen eta aurten ere hainbat ekitaldi antolatzera animatu dira Jameko arduradunak. Gauerditik aurrera hainbat sorpresa izango dira. Alde batetik, Angel Ezkurra, Mikel Berasategi eta Fernando Etxabarri herriko tabernariak disc-jockey lanak egingo dituzte egun horretan eta ondoren euskaraoke saioa izango da. Jaialdiari amaiera emateko La parranda taldeak joko du. Bestalde, abenduaren 27an Su ta Gar taldea izango da Jamen.

E S A N D U T E

"Geuk, herritarrok, ordaindu dugu obra hau, geuk erabili behar dugu eta 2003. hori datorrenerako ongi irabazia dugu bertatik doan ibiltzeko eskubidea. Eskubide hori ken ez diezaguten, eta diru horrekin hain eskas ditugun lurrak betirako galdu ez daitezen, A-8 doan izatearen aldeko plataforma sortu berria da"

**MAITE ARISTEGI**
EHNEko Idazkari Nagusia
ETXTRA

●

"Azken batean Lasa jatetxea luxuzko jatetxea da. Koldo Lasak aurkezten dizkigun sukaldaritza moduak (klasikoa eta sorkuntzazko sukaldaritza) apartekoa eta era askotakoa da, aho guztietarako. Eta jauregiaren ingurua zoragarria da"

**PEIO GARCIA AMIANO**
Gastronomia kritikoa
EL DIARIO VASCO

●



**LA BODA DE MI MEJOR AMIGO**
Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**DE JUNGLA A JUNGLA**
Domeka: 11:30 (Matinala).



**A CIEGAS**
Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

# Zinea

▼▼ Donostiako aurtengo Zine Jaialdiari hasiera eman zion **P.J. Hogan**ek zuzendutako komedia honek. *Julianne* (**Julia Roberts**) eta *Michael*ek (**Dermot Mulroney**) tratu bat eginda daukate; 28 urte betetzean bietako inork bikoterik ez badauka, elkarrekin ezkonduko dira. Baina adin horretara heltzean Michaelek *Kimmy* izeneko gazteari (**Cameron Diaz**) luzatuko dio ezkontza proposamena...

▼▼ **Disney** etxeko filme bat domekako matinalerako. Berriro ezkondu aurretik *Michael*ek (**Tim Allen**) *Patricia* (**Jobeth Williams**) bere emaztea izandakoarekin dibortzioa konkretatu beharko du. Amazonetan bizi da *Patricia* eta hura bisitatzean elkarrekin seme bat dutela ohartuko da *Michael*, eta bere semea New York ezagutzera eramango du.

▼▼ Bere azken filmean **Daniel Calparsoro** zuzendariak (*Salto al vacío*, *Pasajes*) Euskal Herriko gatazka egoerari buruzko ikuspegia eman nahi izan du. *Marrubi* (**Najwa Nimri**) talde armatu bateko partaideak bere komandoko partaide bat hilko du eta hortik aurrera ihesari ekingo dio. **Alfredo Villa** eta **Ramon Barea**rekin.

# Deiak

▼ **Martin Linazisoro** zenaren eskulturak Kultur Etxean.

▼ **Benito Cantero**ren argazkiak Pol-Poleko aretoan.

▼ **Raquel Arenaza**ren margoak Nahikari tabernan.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean 18:30etan Seminarioan.

▼ **Joxean Bilbao**ren oleo erakusketa Andoaingo Ayerbe aretoan.

▼ **Abiadura Haundiko Trena**ren aurkako jaialdia bihar zapatua Donostiako Trinitate enparantzan. Antzerkia, bertso jaialdia eta rock kontzertua 16:00etatik aurrera.

▼ **Kafe antzerkia** Tirili taldearekin gaur 20:30etan Oñatiko Gaztelekun.

# Ogia

▼ **Domeka 30:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 28:** Guallar.
▼ **Zapatua 29:** Estella.
▼ **Domeka 30:** Estella.
▼ **Astelehena 1:** Mozos.
▼ **Martitzena 2:** Camacho.
▼ **Eguaztena 3:** Puy.
▼ **Eguena 4:** Guallar.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ELEKTRONIKA GAIAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

# Torito bravo

## Txirene antzerki taldearen lan berria larunbatean

**"Torito bravo"**, Txirene taldearen antzezlana ikusteko aukera izango da bihar larunbata gaueko 10:30etan Novedades aretoan. Aitor Mazo aktorearen ideia batetan oinarrituta, Patxo Telleriak idatzitako antzezlana joan zen urtarrilean inauguratu zen Bilboko Arriaga antzokian. Lander Iglesiasen zuzendaritzapean, bi aktore izango dira bihar Novedadeseko eskenatokian, Aitor Mazo eta Patxo Telleria hain zuzen ere. Biek bi zezen suharren papera lantzen dute. "Percatao" (Aitor Mazo) eta "Lunero" (Patxo Telleria) izeneko zezenak zelai batean elkartu eta hizketan hasiko dira. Bata, "Lunero" gaztea, ausarta eta esperientzia gabekoa da eta ilargiari bertsoak egiten dizkio; "Percatao", aldiz, bizitzaren esperientziarekin asko ikasi duen zezen zaharra dugu. Gizakiak imitatzea gustoko du eta ahal duen bakoitzean hesiaren ondotik pasatzen diren kotxeetako irratia entzuten ahalegintzen da. Bata bestearen maisu bilakatuko da antzezlanean zehar eta amodio, bizitza, sexu edota patuari buruzko erreflesioa egingo dute. Biak galtzaileak ditugu, zezen plaza batean hiltzeko jaio baitira baina euren egoerari buruzko analisi argia egiteko gauza dira oraindik. Horrela "Lunero"k solidaritatea zer den ezagutuko du eta "Percatao"k alde batera lagako du bere bakardadea, bien artean utopiaren indarra deskubrituz. Ikusleen konplizitatea bilatu nahirik, elkarrizketak umorez eta ironiaz beterik daude, samurtasunak ere bere tartea duelarik antzezlanean.


Patxo Telleriak, "Lunero" zezen gazte eta ausartaren papera egiten du.

**Patxo Telleria eta Aitor Mazo, telebistako aktore ezagunak dira protagonistak**

### Aktore ezagunak

Aktoreei dagokienez, biak ere ezagunak ditugu antzerkian, telebistan eta zinean egin duten lanarengatik. Patxo Telleriak eta Aitor Mazok Maskarada taldean eman zituzten lehen urratsak interpretazio profesionalean eta ordutik produkzio askotan hartu dute parte. Azken urteetan Telleriak aktore eta gidoilari lanak egin ditu Euskal Telebistako "Bi eta bat", "Jaun ta jabe" eta "Gure familia" telesailetan. Aitor Mazo berriz oso aurpegi ezaguna bilakatu zaigu Antena 3eko "Los ladrones van a la oficina" eta Tele 5ko "Querido maestro" telesailetan edota "Airbag" eta "Cachito" filmeetan egindako lanei esker.

Biharko emanaldirako sarrerak 800 eta 500 pezetan (Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin) jarriko dira salgai.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra. Tl. 76 71 19

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

## Zorionak Gaztelu

Bergarako gazte talde batek, zure urtebetetze eguna ez dugu inondik ahaztu, beraz hemendik muxu haundi-haundia bidaltzen dizugu, beste horrenbeste beteko dituzun itxaropenarekin.

Bertso honekin agurtzen zaitugu. Zorionik beroenak eta 46 teinkada belarritik.

Zure zorion egunarekin
ez geradenez ahaztu
mezu txikitxo honen bitartez
nahi zaitugu zoriondu
urte askotan jarrai ezazu
beti bezala jo ta su.
Bergara aldetik bihotz-bihotzez
zuretzako mila muxu.

ANE ETA KLASEKO LAGUNAK

## Eskerrik asko

Joan zen urriaren 25ean Behobia txikian parte hartu zuten korrikalari guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta berezeki lasterketa herrikoia antolatzen lagundu ziguten Rotulos M2, Matxiategiko Euskadiko Kutxa eta Miner edari banatzaileari.

BEHOBIA TXIKIAREN ANTOLATZAILEAK

## Simon Arrietako ohola

Orain dela aste batzuk Berrigaran karta bat publikatu zen, Simon Arrietako atari baten ondoan zegoen zulo bat tapatzeko zegoen ohol bat kentzeko eskatuz. Egia da estropozu bat baino gehiago egin duela jendeak bertatik pasatzean eta eskerrak ez dena istripu larriagorik gertatu, edozein agure bertan jauziz gero min haundia hartu baitzezakeen.

Ni ere inguru horretan bizi naiz eta egunero tokatzen zitzaidan norbait parean horrekin kexatzen. Jende asko ibiltzen da inguru horretan, bai Kruz Gallastegi kalera joaten den jendea eta bai egunero jolasean aritzen diren haurrak ere. Ez dakit nork jarriko zuen ohola bertan baina kontua da azkenean kendu dutela eta eskerrak eman nahi dizkiot bai lan hori hartu duenari eta baita orain aste batzuk Berrigara aldizkarira karta bidali zuen Miren Garmendiari ere.

Kasu honetan, behintzat, badirudi zerbaitetarako balio izan duela karta idazteak eta beraz hurrengo batean ere beste horrenbeste egiteko eskatu nahi nieke zerbait esateko daukaten herritar guztiei. Gehienetan ez du ezertarako balio izaten lagunartean zerbaiten inguruan kexa azaltzeak. Onena zera izaten da, benetan salatu nahi dugun gaiaren inguruko konpetentzia duenarengana jo eta horrela aukera gehiago izango ditugu zerbait lortzeko. Eskerrik beroenak, beraz, goian aipatutakoei.

LUIS ALBERDI

## Fax zenbaki berria

BERRIGARA eta JARDUNEKO fax zenbakia aldatu egin dugu. Mezu, ohar, idatzi eta abarrak faxez gurera bidali nahi izanez gero,

**76 29 77**

zenbakia markatu beharko duzu aurrerantzean. Barkatu eragozpenak.

# Tiiira biraka

ALEX UGALDE



# Santa Luzia eguna!



**xaun jatetxea**
osu Tf. 85 32 50



**Ortzi jatetxea**
Angiozar auzoa Tf. 76 22 68



**Piszinetako taberna**
Agorrosin igerilekuak Tf. 76 53 55



**Sirimiri jatetxea**
arrenkalea 3 Tf. 76 59 19



*Dantzarako pista, musika eta zuzeneko ikuskizunarekin!*

**Tartufo jatetxea**
San Juan auzoa Tf. 76 35 51



*Soinujole eta guzti!*

**Txuringo jatetxea**
Osintxu 14, Osintxu Tf. 76 48 63

*Abenduaren 13an zatozte lagunartean girorik atseginenean afaltzera!*



**Zabala jatetxea**
Ibarra 14 ,Labegaraieta
Tf. 76 20 07 / 42 57



**Zubiberri jatetxea**
San Anton auzoa Tf. 76 30 24

*Eskatu lekua lehenbailehen!*



KALITATEKO EUSKAL OKELA

CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

EUSKO LABEL

*Euskal Herrian okela ona dugu*

EUSKO LABEL

KALITATEA



EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

*Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari*

*KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA*

*Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da*

BERGARA

▶ **CARNICERÍA URZELAI**
*IBARGARAY, 16 - BAJO*

▶ **CARNICERÍA JON LETURIA**
*PEDRO DEUNA, 24*

▶ **CARNICERÍA ANDRÉS MUJIKA**
*DOMINGO IRALA, 5*

**-BIXAIN HARATEGIA**
*AZOKA PLAZA, PTOS. 5-6*

ANTZUOLA

▶ **MUJIKA HARATEGIA**
*KALEBARREN, 1*

▶ **GABILONDO HARATEGIA**
*KALEBARREN, 14*

SORALUCE-PLACENCIA

**-JAVIER ALBERDI HARATEGIA**
*RABAL, 24*

●Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur gorri batez ( ▶ ) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

### Idazkari lanpostua Antzuolako udalean

Antzuolako udalak behin-behineko funtzionari bat hautatu behar du, oposizio-lehiaketa bidez, hutsik dagoen idazkaritza-kontuhartzailetza lanpostua betetzeko. Instantziak eta dokumentazioa aurkezteko epea abenduaren 22an bukatzen da.

### Pol-Polen mendi eta eski azoka

Pol-Polek antolatzen duen mendi eta eski azokarako gauzak lagatzeko epea datorren martitzenean bukatzen da.

### Eskaparate lehiaketa

Bergarako Udalak antolatzen duen eskaparate lehiaketan parte hartzeko epea bihar, zapatua, eguerdian bukatzen da. Izena emateko Kultur Etxera jo behar da.

**HILDAKOAK**

**Marian Conde Borrejo**
Azaroak 20, 36 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Maitane Juaristi Agirrezabal**
Azaroak 20.
**Sara Mancho Peña**
Azaroak 20.

# Mizpirualde egoitzako kuota berriak erabaki ditu Udalak

**Astelehenean** Udalbatzarrak, ez-ohizko bileran, Mizpirualde egoitzak datorren urtean izango dituen prezio berriak onartu zituen alderdi politiko guztien onarpenarekin. Prezioak zehazteko orduan bi multzo eduki dira kontutan: alde batetik, hurrengo abenduaren 31a baino lehenagotik egoitzan daudenenak eta, bestetik, datorren urtean sartuko direnak.

Gaur egun egoitzan daudenentzat, 1993a baino lehen sartu direnek, logela bikoitz bategatik, 73.500 PTA ordaindu beharko dituzte eta batentzako logela bategatik 86.100 PTA. 1993tik 97ra bitartean sartutakoek, berriz, elbarrituak ez badira, hileko102.850 PTA eta elbarrituek 113.850 PTA ordaindu beharko dituzte. Datorren urtean Mizpirualden sartuko direnentzako kuotak Diputazioko Gizartekintzarekin Udalak sinatutako lankidetza hitzarmenak zehaztuko ditu.



Udalbatzak Mizpirualderen datorren urteko kuotak zehaztu zituen.

Bestalde, Udalbatzarrean Basalgoko ermita konpontzeko 3 miloi PTAko gastu gehigarria ere onartu zuten EAJ, EA eta PSE-EEk. Herri Batasuna gastu gehigarri horren aurka azaldu zen. HBkoek salatu zutenez, 3 miloiko gastu gehigarria ez zen eztabaidatu komisioetan eta, ondorioz, ez zen proiekturik aurkeztu; *"prozedura guztiz irregularra"* izan dela salatu zuten HBko zinegotziek. Alkateak prozeduran errua izan zela onartu zuen, baina diru horrekin egiteko lanak beharrezkoak zirela adierazi zuen eta errua teknikarien akats batengatik izan dela esan zuen.

### Ia 9 miloi kaleak asfaltatzeko

Era berean, herriko hainbat gune asfaltatzeko 8.885.716 PTAko diru kopurua ematea erabaki zuten alderdi guztiek. Dagoeneko hasi dira kale batzuk asfaltatzen, San Martin Agirre eskolako aurrealdea esate baterako; eta ahalik eta azkarren Bideberri, Ramon Maria Liliko plaza, Udal Euskaltegiaren aurrealdea eta Usondoko parkea asfaltatuko dituzte.

Azkenik, Udal Pilotalekuaren erabilpenaren arautegi berria ere onartu zen EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko botoekin eta HBren ezezkoarekin. Aldaketa berriekin ezin izango da palan jokatu eta eskuz jokatzeko orduak hartzeko aukera izango da. HBk esan zuenez gaia aurretik komisioetan ez delako tratatu eman zuen ezetza.

PB
PINTURAS BERGARA S.L.
• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• APAINKETARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK
• ERROTULOAK
Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa: 76 10 65, faxa: 76 11 40

### Kurdistani buruzko hitzaldia datorren martitzenean

Komite Internazionalistek antolatuta, martitzenean 19:30etan Kurdistango egoerari buruz Knut Rauchfuss-ek hitz egingo du Errotalde kultur etxean. Rauchfuss sendagile alemaniarrak urteak daramatza Kurdistanen lanean. Hitzaldian, "Kurdistan: debekatutako herrialdea" bideoa ikusgai ahal izango da eta gaiari buruzko erakusketa bat ere izango da.

### Alargunen bazkaria Kontzesiño egunean

Egoitza alargunen elkarteak urtero egiten duen bazkaria antolatuko du abenduraren 8an. Bazkarira joan nahi duten bazkideei dei egiten zaie datorren eguakitza baino lehen elkartetik poasatzeko. Arratsaldeko 18:30etatik aurrera eman ahal izango da izena.

### Jesus Mari Lazkanoren erakusketa Legazpiko Bikuña jauregian

Jesus Mari Lazkano pintore bergararraren lanak ikusi daitezke Legazpiko Bikuña jauregiko erakusgelan datorren abenduaren 12ra arte. Erakusketan zenbait partikularrek eta erakundek lagatako pinturak biltzen dira.

### Bedelkarreko harakinen zozketa

Bedelkar elkarteko harakinek astero zozketatzen dituzten txuletak 6.838 zenbakiari egokitu zaizkio oraingoan. Txartelaren jabeak 5 kilo txuleta jasoko ditu.



Iaz oso erantzun ona jaso zuen Gaztainerre egunak.

## Gaztainerre eguna domekan plazan herriko euskara elkarteen eskutik

### *Sagardoa eta 50 kilo gaztaina doan banatuko dira*

Jardunek, AEK-Akulu Euskaltegiak eta Bergarako Udal Euskaltegiak, gaztainak jateko sasoia dela aprobetxatuz, eta euskal giroa bultzatzeko, Gaztainerre eguna antolatu dute domekan arratsaldeko 19:00etan San Martin plazan. Ordu horretan euskararen alde egiten duten hiru elkarteetako kideak gaztainak eta sagardoa banatzen arituko dira San Martin plazatik pasatzen den jendearen artean. Guztira Eroskiko kontsumitzaileen komiteak emandako 50 kilo gaztaina banatuko dituzte.

Gaztainak prestatzeko 3 danbolin izango dira eta arratsaldeko 16:00etan hasiko dira prestaketa lanetan. *"Gaztainerre egunaren helburua Bergaran giro euskalduna bultzatzea da. Gaztainak dohainik banatuko dira eta espero dugu joan zen urtean baino hobeak irtetzea. Joan zen urtekoak nahiko gogorrak irten ziren, baina aurten denbora gehiago hartuta hobeak irtengo dira"* adierazi digu Eba Alberdi Jardun elkarteko dinamizatzaileak.

Gaztainak jateaz gain, jai giroa izango da nagusi eta horretarako Jardun elkarteko trikitilari taldekoak eta Bergarako abeslari talde batek betiko euskal kantak abestuko dituzte. *"Joan zen urtean arrakasta handia izan genuen eta jende askok parte hartu zuen. Gainera, aurten, Akulukoek eta Udal Euskaltegikoek ere parte hartuko dute eta jende gehiago animatuko delakoan gaude"* adierazi digu Alberdik.

Iturkintz Berri
INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

Siaska
Dena zure haurrarentzako
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

# Homosexualitateari buruzko ekitaldiak datorren astean

## *Hitzaldia Kultur Etxean eta saio berezia Txapa Irratian*

Euskal Herriko homosexualen elkarteak, EHGAMek, Txapa Irratiak eta Jarraik antolatuta datorren astean homosexualitateari buruzko hainbat ekitaldi izango dira. Asier Orgaz ekitaldien antolatzaileetariko batek adierazi digunez, *"helburua homosexualitateari buruzko informazioa zabaltzea da. Jendeari begiak zabaldu nahi dizkiogu gai horri buruz, gaur egun nahiko izkutuan baitago"*.

Ekitaldiak eguastenean 19:00etan Kultur Etxean "Priscilla, reina del desierto" pelikularekin hasiko dira. Eguenean, 22:00etan Txapa Irratian homosexualitateari buruzko saio bat izango da eta eguakitzean 19:00etan Kultur Etxean EHGAMeko kideek "homosexualitatearen gaur egungo egoera Euskal Herrian" gaiari buruz hitz egingo dute. *"Txapa Irratiko programan 2 edo 3 lagun izango dira eta izan duten esperientzia pertsonalari buruz hitz egingo dute. Hitzaldian, berriz, EHGAMeko kide batzuk izango dira eta euren esperientzia kontatzeaz gain, tertulia bat sortzeko asmoa dugu"* esan digu Orgazek.

Ez da lehenengo aldia homosexualitateari buruzko ekitaldiak antolatzen direna Bergaran. Izan ere, joan zen urtean eta aurten hitzaldia antolatu dituzte Ipintza institutoan. *"Ekitaldietan parte hartzeko ez da homosexuala izan beharrik, denentzako daude ateak zabalik. Joan zen eguakitzean hitzaldi bat antolatu genuen Aretxabaletan eta oso erantzun ona izan genuen"* dio Orgazek.



Homosexualitateari buruzko informazioa zabaltzea da ekitaldien helburua. ARTXIBOA

### Industrialdearako kapital gehikuntza

Udalbatzarrak Bergarako Industrialdearako 34.300.000 PTAko kapital gehikuntza onartu zuen astelehenean. Industrialdea berriko jabeak Spri erakundea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bergarako Udala izango dira eta hasiera batean 140 milioi PTAko kapitala izango du elkarteak. Diru hori, Labegaraietako industrialdeako urbanizazioa eta pabiloiak egiteko erabiliko da. Lanei urte bukaeran edo datorren urte hasieran ekingo diote. Lanok Construcciones Amenabar enpresak egingo ditu eta sei hilabeteko epea izango du obrak egiteko; beraz, datorren udarakoedo, urbanizazio lanak eta industria pabiloiak eginda egongo dira. Lehen fase honen aurrekontua 186 milioi pezetakoa da. Lehengo Zerrajerako orubeetan kokatuko den industrialdea osoaren urbanizazioaren aurrekontua, berriz, 1.000 milioi pezeta ingurukoa da.

### Jose Mari Etxanizen aldeko plataforma

Jose Mari Etxaniz, otsailean 18 urte kartzeleraturik beteko dituen preso bergararraren askatasuna eskatzeko plataforma bat eratu nahi du bergarar talde batek. Etxanizek bere askatasuna eskatzeko errekurtso bat jarri du Audientzia Nazionalean. Erakunde horrek bere alde egiten badu, kalera irtengo da. Plataformaren helburua, errekurtsoa azkartzeko ekitaldiak antolatzea izango da. Plataforman parte hartzeko Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan eman beharko da izena eta edozein bergararrentzat zabalik dago.

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

AZPEITXI
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00
Jatetxea

# Jerardo Elortza

## Kapirixoko kidea



Agustin Fernandez galiziarraren nobela bat euskarara itzuli du.

**Kapirixoko kidea den Jerardo Elortzak Agustin Fernandez Paz idazle galiziarraren "Neguko gutunak" nobela euskarara itzuli du. Horrez gain, eguenean egin zen Kapirixoko batzar orokorraren ondoren, azken 20 urteotan Deba Garaian galdu eta errekuperatu den ondareari buruz jardutekoa zen. Eguastenean berarekin izan ginen.**

**- Agustin Fernandez Paz idazle galiziarraren "Neguko gutunak" eleberria itzuli duzu. Itzulpengintzan sartu zara?**

- Galegotik eta katalanetik testu batzuk itzuli izan ditut baina hau izan da lehen eleberria. Ferrolen egin nuen soldaduzka eta gaztetan asko ibili nintzen Galizian. Bertako literatura irakurtzera zaletu nintzen eta, beraz, galegoa irakurri eta itzultzeko lain badakit. Elkar argitaletxekoek enkargua eman zidaten nobela itzultzeko eta, Branka, gaztetxoentzako liburu sailean argitaratu da.

**- Zeri buruzkoa da?**

- Gazteentzako misterio edo beldurrezko nobela da. Galizia tradizionala, arimak, mamuak, sorgindutako etxeak, "A Santa compaña" eta mundu misteriotsu horren inguruko istorioak kontatzen dira, baina gaur egungo gizarte modernoan girotuta dago. Mutikotan eskolan elkarrekin ibilitako bi lagunen artean, pintore bat eta idazle bat, trukatzen dituzten gutunen bitartez kontatuta dago historia.

**- UNEDeko EKD itxi zela pare bat urte pasatu dira. Zertan aritu zara denbora horretan?**

- Liburua itzultzeaz gain, beste hainbat lantxo egin ditut. Bestalde, Oñati eta Gipuzkoa elkartu zirela 50 urte bete ziren 1995ean eta liburu bat argitaratu zen. Horretan lanean jardun nuen Juantxo Madariaga eta Mikel Zumalderekin batera. Orain dela 50 urte Oñati zelakoa zen eta bategitze prozesua nolako izan zen aztertu genuen. Ni hirigintza eta hezkuntzari buruzko atalaz arduratu nintzen. Bestalde, tesia prestatzen ari naiz. Manuel Umerezek XIX. mendearen hasieran oñatieraz idatzi zituen eskuizkribu batzuei buruzko tesia izango da.

**- Egueneko -atzo- Kapirixoren batzar orokorraren ondoren, azken 20 urteetan Deba Garaian berreskuratu eta galdu den ondareari buruz berba egingo duzu.**

- Bai errepaso labur eta azalekoa izangoa da, hasi Gatzagatik eta Bergararaino errekuperatu edota galdu den ondareari buruzkoa. Zaila da jakitea azken 20 urteotan galdu ala errekuperatu egin den gehiago. Bergaran lan interesgarriak egin dira: Barrenkaleko fatxaden eta barruko etxe batzuen birgaitzea, Ormazabal hotela esate baterako. Ikusten da fatxada kontuetan kezka badagoela gaur egun. Lehen etxe zaharrak bota eta berriak eraikitzen ziren; orain, behintzat, kanpoko lau paretak errespetatu eta berriztu egiten dira sarritan. Errekuperatu den ondareari buruzko kasurik nabarmenena Gatzagarena izan da. Ia hutsik zegoen herriak bultzada haundia izan du azken urteetan eta etxe asko berriztu egin dira.

**- Galdu diren elementuen artean zer nabarmenduko zenuke?**

- Herri guztietan ez da ondarea berdin gorde eta Oñati, beharbada, etxeak ondoen gorde diren herria da, nahiz eta azken urteetan batzuk ez errespetatu. Orokorrean, bailaran, kaltzada zaharrak, lehengo bidesarea, gurdi bideak e.a. ez dira gehiegi errespetatu. Auzo edota baserrietako bideak, esate baterako, porlandu egin dira, askotan, kontserbatzeko zegoena errespetatu barik.

Bestalde, nabarmentzekoa da Elosu inguruan eremu megalitiarra garbitzeko eta seinalizatzeko Kapirixok egindako lana, eta baita Oñatiko Andra Mari ermita garbitzeko egindakoa ere. Aurrera begira, Bergara eta Arrasateko Zerrajerako elementu batzuk gordetzeko edota Deba errekaren gainean doazen zubiak zaintzeko zerbait egin beharko litzateke.

**"Kaltzada zaharrak, lehengo bidesarea, gurdi bideak e.a. ez dira errespetatu bailaran"**

*Osasuna*

# Elikadura garapenean



**ALBERTO ITURBE**
*(Medikua)*

**- Elikadura prozesuan guztiok ditugu ezaugarri berdinak?**

- Gizaki guztiok nutritiboki ezaugarri orokorrak ditugu eta bakoitzak bere berezitasunak ditu. Hori gure kodigo genetikoan dago. Gure zelula guztiek daukate kodigo genetiko hori; martxan jartzeko elikagaiak beharrezkoak dira. Elikadurak determinatzen du heredatu duguna modurik onenean gauzatzea. Jaterakoan gure zelulak sustantzia batzurekin jartzen dira kontaktuan eta beraz, zelulek behar dutena proportzio egokian hartzen badute, bere botere genetikoa modu onenean zabaltzen dute.

**- Zeintzuk dira horren abantailak?**

- Pertsona batek jaiotzen den momentutik elikadura perfektoa eramaten badu, bizitza luzeagoa eta osasuntsuagoa izateko aukera dauka, fisikoki eta intelektualki ere kemen maximoa erakutsiko du... Hau da, nire seme-alabek 100eko elikadura badaukate, euren errendimendua 100ekoa izango da; elikadura, ostera, 80koa bada, errendimendua 80koa izango da.

**- Zeintzuk dira gure gorputzak behar dituen elikagaiak?**

- Sustantzien proportzioa modurik onenean ematen ahalegindu behar dugu. Makronutrienteen (karbono hidratoak, lipidoak, proteinak eta fibra) kantitate haundia behar dugu adibidez, gorputzak enerjia har dezan; A, E, C, D eta K bitaminak ere inportanteak dira zahartze goiztiarretik, gaisotasunetatik eta minbizitik babesteko. Zoritxarrez, gaurko gazteen dieta pobrea da bitamina hauei dagokienez. Bitamina hauek zereal integraletan, barazki eta fruta gordinetan edota lekaletan aurki ditzakegu. D izeneko konplexu bitaminikoa orridun begetaletan dago eta B6 bitamina, berriz, zereal integraletan eta lekaleetan. Hauek hazkunderako inportanteak dira. Bestalde, mineral eta oligoelementoetan, kaltzioa, magnesioa, fosforoa, zinka, burdina eta silizioa topatuko ditugu, gaur egun baino neurri haundiagoan hartu behar direlarik. Gainera, orokorrean, nesken dieta mutilena baino pobreagoa da mineraletan, mutilek baino hiru aldiz ariketa fisiko gutxiago egiten baitute. Loditzeko beldurrez ez zaie potajeak hartzea gustatzen baina gozokiak berdin jaten dituzte.

**- Zein da dieta orekatu baten modeloa?**

- Dieta meditarreneoa delakoa jarraitzea gomendatzen da. Gerra aurreko baserriko dieta gaurkoa baino gehiago hurbiltzen zen dieta mediterraneora. Gaur egun, berriz, ez gaude egon beharko ginatekeen bezain ondo. Deskrematutako esnekien kontsumoa haunditu beharko genuke, haragiarena gutxitu, arraultzak gehiegi ez jatea ere ondo etorriko zaigu, grasa eta alkoholaren kontsumoa ere gutxitu, barazki eta fruta gordinak gehiagotan jan, zereal integralekin eta lekaleekin ere berdin, eta, azkenik, gozokiak saihestu.

## "Dieta orekatu bat eramateko dieta meditarreneoa jarraitzea gomendatzen da"



Ahal den neurrian gozokiak saihestea gomendatzen da.

**ARREGI**
**Eraikuntza materialeak**
Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

**Jose R. Fernandez**
PORTAERA PSIKOLOGIAKO GABINETEA
Antsietatea, depresioa, ikasketa eta portaera arazoak eta informe perizialak
Ramon Maria Lili 2 behea
Tf. 76 59 39

**GURIDI altzariak**
**Era guztietako altzariak**
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02



Balizko gune arkeologikoen zerrendan baserriak, ermitak, dorreak edota etxeak agertzen dira. Goiko argazkian Zupide baserria.

# Lur azpiko altxorrak

## 114 gune arkeologiko Bergaran

**Jaurlaritzako Kultura sailak Gipuzkoako hainbat herritako arkeologia guneak jaso ditu urriaren 30eko boletin ofizialean. 1990eko uztailaren 3an Euskal Kultur Ondareari buruzko legea onartu zenetik, Kultura sailak euskal ondasun kulturalen inbentarioa egin eta elementuok babesteko arauak zehazteari ekin zion.**

Horren arabera, ondarea horrela sailkatzen da: ondare higiezina (arkitekturako lanak), ondare higigarria (pintura, eskultura edota epokako altzariak), ondare etnografikoa, ondare dokumentala (dokumentu zaharrak), ondare bibliografikoa eta, azkenik, ondare arkeologikoa (nagusiki lur azpian dagoena).

Oraingoz monumentuekin (arkitektura) lana oso aurreratuta baldin badago ere, lehen aipatutako legearen izpirituari jarraituz, orain beste horrenbeste egingo da multzo monumentalak (etxeak eta alboko plazak adibidez), ondare etnografikoa (baserrietako aintzinako lanabesak edota erlijio kontuak), istorio, leiendak etabarrak eta, era berean, ondare arkeolojikoarekin.

Bizkaian eta Araban lan bera egin ondoren, Jaurlaritzako Kultura sailak Gipuzkoako udaletako arkeologia guneak aitortu ditu orain. Bergarako kasuan, 114 gune onartu dira zerrenda honen barruan. Kultura saileko arkeologo talde batek aurten ekin zion Bergarako gune arkeologikoen zerrenda prestatzeari eta beti ere udal langileen kolaborazioa izan dute lan hori egin ahal izateko.

### Hiru kategoria

Gune arkeologikoen zerrenda horretan hiru kategoria bereizten dira: kalifikatutako gune arkeologikoa (kalifikazio gorena merezi izan duten elementu baliotsuenak),

## "Balizko elementuen benetako balioa oraindik jakiterik ez dagoen arren, Bergara nahiko aberatsa da arkeologia mailan" X. ARANBURU

inbentariatutako gune arkelogikoa (erdiko kategoria dutenak) eta, azkenik, balizko arkeologia guneak. Oraingoz Jaurlaritzak azken kategoria honetako zerrenda kaleratu du eta bertan 98 gune jasotzen dira. Aurreneko bi kategorien artean 16 gune izango dira eta hain zuzen ere elementu horiek izango dira arkeologia aldetik garrantzitsuenak. Kategoria bakoitzari babes neurri batzuk dagozkio. Kalifikazio gorena izango dutenak oraindik jakinarazi ez den arren, kalifikatutako gune arkeologikoen artean, besteak beste, parrokiak, Udala-Intxorta eta Elosua-Plazentzia estazio edo eremu megalitiarreko monumentu prehistorikoak eta Bergarako alde zaharreko hainbat kale (Artekalea, Barrenkalea eta Goenkalea) eta bertako etxeak jasoko dira ziurrenik.

Xabier Aranburu udal museologoak adierazi digunez, *"balizko elementu arkeologiko horien balio zehatza oraindik jakiterik ez dagoen arren (eskabaziorik egin ez delako), elementuen kopuruari dagokionez behinik behin, Bergara nahiko aberatsa da arkeologia mailan".*

### Ikerketa lana

Esan bezala, gune arkeologikoen zerrendarik luzeena balizko arkeologia guneena izango da. Bertan jasotzen diren 98 elementuetatik, gehienak baserriak, ermitak, errota zaharrak, dorreak eta kaleko etxeak dira. Baserrien kasuan, baserriak kanpotik aztertzeaz gain, artxibotan baserri bakoitzari buruz zegoen dokumentazioa aztertu da kalifikazio hori eman baino lehen. Ermitei dagokienez, ikerketa lana ere ez da makala izan. San Anton ermitaren kasuan adibidez, Eibar-Gasteiz autopista zela eta ermita lekuz aldatzeko aukera aztertu zenean eta Udalak alegazioa landu zuenean, er-



Baserriak kanpotik aztertzeaz gain, baserri bakoitzari buruz zegoen dokumentazioa ikertu da.

Garnish
Bitxitegia
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Gallastegi
Jostundegia
Mahoizko lanerako jantziak
San Pedro ☎ 76 10 85

RAKEL ARENAZA

margo-erakusketa
NAHIKARI taberna
Masterreka, 20 Tf. 76 57 71

Bolintxo
OKINDEGIA
domeketan ere zabalik
Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

# Gune arkeologikoak



Etxeaundi eta Etxetxiki.

**Oraindik goreneko kalifikazioa izango duten 16 elementu arkeologikoak izendatzea falta baldin bada ere, zerrenda honetakoak dira orain arte Jaurlaritzak izendatu dituen balizko gune arkeologikoak:**

**BASERRIAK:**
- Egiaga Azpikoa
- Narbaiza Goikoa
- Narbaiza Azpikoa
- Iriaun
- Lazpiur
- Olabarri
- Izarre
- Gallastegi Dorre
- Arane Erdikoa
- Zabalotegi (Mariaren Lagundiko terrenuetan)
- Lamarain
- Agurlaeta Goikoa
- Jarenekua
- Irigoien Zabala
- Aldai Azpikoa
- Ondartza
- Zupide
- Lamariano dorrea
- Agirre, Mendizabal
- Sagastizabal Txiki
- Sagastizabal Haundi
- Elkoro Muño
- Elkoro
- Elkoro Barrutia
- Arizti

**ELIZAK:**
- Osintxukoko San Emeterio
- Osintxuko Zeledonio
- Angiozarko San Migel
- Uberako San Paulo.

**ERROTAK:**
- Lazpiur
- Haitzuriondo
- Barruti Bolu
- Elorza Bolu
- Luis Bolu
- Errotagaina
- Intxaurrondo baserria (aintzinako Okandi errota)
- Salto Errota
- Bolintxo
- mAmuskibar Bolu

**GAZTELUA:**
- Elosuko gaztelua (Ertaroko dorre zaharra zegoen lekua)

**HERRI BARRUAN:**
- Seminarioa
- Jauregi etxea (Banco Guipuzcoanoren etxea)
- Arrese jauregia
- Egino Mallea jauregia
- Errekalde jauregia
- Ozaeta jauregia
- Laureaga dorrea edo Etxeaundi
- Masterreka dorrea
- Ondartza etxea
- Olaso dorretxea
- Gabiria dorrea
- Artzamendi dorrea aintzinako La Magdalena ospitalea (gaur egungo Epaitegia eta aurreko eremua)
- Usondo etxea edo Etxetxiki
- Zabala etxea (Bidekurutzeta 14, bertan aurkitzen baitzen)
- Zubieta kaleko 36 eta 38. zenbakiak

**ERMITAK:**
- Elosuko Santutxua (Santa Cruz)
- San Adrian (Gorlako kantina zaharraren ondoko harrizko gurutzearen ingurua)
- Santiago
- San Anton
- San Fausto baserria (lehen ermita zena)
- San Blas
- Santa Lutzia baserria (lehen ermita zena)
- San Adrian (Ondartza baserriaren atzean)
- San Martzial
- San Joxepe baserria (lehen ermita eta hilerria zena)
- San Juan
- San Pelayo (Esperanza baserriaren atzeko lurretan zegoena)
- Santa Cruz Irazabal
- San Emeterio eta Zeledonio (Uberako San Matei)
- Kanpazarko San Migel Monte
- San Bartolome
- Elizamendiko ermita
- Azkunetako San Martin de Tours ermita
- San Bizente (Parteittin)
- San Kristobal
- San Millan (desagertua, Aizpe baserriaren atzeko lurretan zegoena)
- Ozaetako San Martin (baserria gaur egun)
- San Salvador edo Santa Katalina
- Santa Ana
- Soledadeko etxeak (lehen beaterioa zena eta bere ondoan zegoen ermita)
- Aritzetako San Migel
- Elorregi zahar baserria (lehen San Prudentzio zahar ermita zena)

mitaren azpian hilerri bat zegoela ikusi zen eta beraz hirugarren multzo horretan sartu da San Antoneko ermita. Erroten kasuan, berriz, aintzinan errotak ziren baserri zahar batzuk jasotzen dira aipatutako zerrendan, tartean Lazpiur, Elorza Bolu eta Okandi. Era berean, Jaurlaritzak egindako lanean Laureaga, Masterreka, Ondartza, Gabiria, Artzamendi edota Olasoko dorreak jasotzen dira.

Elementu guztiotan bereizketa bat egiten da; arkeologia aldetik interesgarriak diren zenbait elementutan babes neurriak hormaz barruko eremuan zehazten dira; eta beste hainbat kasutan, ostera, elementua eta inguruko lur zatian ezartzen dira babes neurriak.

### Babes neurriak

Euskal Kultur Ondareari buruzko legeak jasotzen duenez, hauetako elementu batean obraren bat egin aurretik azterketa arkeologiko bat egin behar da elementu horrek izan dezakeen balio arkeologikoa zehazkiago determinatzeko eta, era berean, egin beharreko lanek zelako eragina izango duten elementu horretan zehatz-mehatz jakiteko. Obrarekin hasi aurretik azterketa arkeologikoa eta obraren proiektua Gipuzkoako Diputaziora bidali beharko dira eta Diputazioak erabaki beharko du zer egin. Diputazioak ondoren emango dituen erantzunen artean lau aukera jasotzen dira: alde batetik obrak interbentzio arkeologikorik gabe egin ahal izatea, bestetik obrak

**Euskal Kultur Ondareari buruzko legearen arabera, hauetako elementu batean obraren bat egiteko azterketa arkeologikoa beharrezkoa da**



Jaurlaritzako Kultura sailak egindako txostenean ermita ugari jasotzen dira. Argazkian, San Matei.

kontrol arkeologikoarekin egitea (obrak burutu bitartean bertan arkeologo bat izatea lanak ondo egiten ari direla zaintzeko), hirugarren aukera sondeo arkeologikoarena litzateke (obra hasi aurretik arkeologo batek eskabazio txiki bat egitea benetan zer nolako ondare arkeologikoa dagoen ikusteko) eta, azkenik, eskabazio arkeologikoa egiteko aukera aipatzen da, hau da, eskabazio osoa egitea lana burutuko den eremuan.

Legearen arabera, lan horiek etxearen jabeak edota obraren promotoreak ordaindu behar baldin baditu ere, praktikan ez da horrela gertatzen. Edozein obra egin aurretik gertatzen den moduan, lehenik eta behin obra eskaera aurkeztu behar da Udaletxean eta Xabier Aranburu udal museologoak lehen aipatutako elementuetan egin behar diren obrak aztertu ondoren, Bulego Teknikoari abisua pasatzen dio. Ondoren, Udaletik obra proiektua Diputaziora bidaltzen da eta Diputazioko arkeologo bat izaten da obra hori zela egingo den erabakitzen duena. Diputazioak sondeo arkeologikoa edota eskabazioa egin behar dela agintzen badu, lan hori jabeak edo promotoreak ordaindu behar izaten du baina, dena dela,Diputazioak dirulaguntzak ematen ditu horrelako kasuetan.

**Ondare publikoa**

Azkenik, legean, ondare arkeologikoaren jabetza norena den ere jasotzen da. Elementu guzti horietan aurkituko litzatekeen ondarea ez litzateke eraikuntzaren jabearena izango. Behin ondare guzti hori jaso eta sailkatutakoan, Diputazioak erabaki beharko luke horrekin zer egin, museo batean ikusgai jarri edo dena dela. Lur azpian dauden altxorren jabetza publikoa da beraz. Udaletxean adierazi digutenez, gai honi buruzko kontsultaren bat egin nahi dutenek udal museologoaren bulegoan, Kultur Etxean (77 91 61 telefono zenbakia), edota Udaletxeko Bulego Teknikoan (77 91 38) jaso dezakete beharrezko informazio guztia.

IGARO
✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariunma
Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

# Zer deritzozu goardiako farmazien gaueko zerbitzu konpartituari?



**Higinio Ugarteburu**

Lehengo sistemara bueltatzea ondo ikusten dut, herri bakoitzak bere zerbitzua eskaini beharko luke. Batzuetan Arrasateraino joan behar izatea gaizki ikusten dut.



**Itziar Alkorta**

Orain arte zortea izan dut eta ez zait tokatu Arrasatera joan behar izatea. Hala ere, lojikoena herri bakoitzean goardiako farmaziaren bat egotea litzateke.



**Isabel Contreras**

Nik nahiago dut lehen erabiltzen zen sistema, herri bakoitzak zerbitzua eskaini eta ez egun batzuetan Arrasatera joan behar izatea. Lojikoa da hori.



**Nieves Agirre**

Oso ondo ikusten dut lehengo sistemara itzultzea. Ez zait tokatu Arrasatera joan behar izatea baina batzuetan izan dugu bai goardiako farmaziaren beharra.



**Jorge Javier Ilzarbe**

Hobe hasiera batean moduan jarraitzea, bestela egun batzuetan Arrasateraino joan beharra dago. Bergaran hilabate osoan zerbitzua eskainiko balitz, askoz hobe.



**Jose Mari Ambroy**

Onena herri bakoitzak bere zerbitzua izatea litzateke. Ez litzaidake gustatuko Arrasateraino joatea, han farmazia bilatzen hasi etabar. Bergaran badira farmaziak.




Torreauzo 9
Tf. 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI

Etxe Aundi
*Hotela***  *Jatetxea*

*SANTA LUZIA*
*egunerako*
*menu berezia*
*orkesta eta guzti!*

*TXINPARTA taldearen dantzaldia!*



## Baraua

Beti ezagutu dut barau egiteko ohitura gure inguruan; nahiz eta urte hauetan erlijioaren eragina, errituatetan behintzat, indarra galduaz joan, oraindik jende dexentek egiten du. Asteko ostiralean, barikuan, gauzatzen dute baraua, janari bat, okela normalean, ez janez. Baina askok egiten ez duten bezala, zentzurik ez diotelako aurkitzen, egiten duten askok ere erritual hutsez, norberaren erlijioak horrela agintzen duelako, egiten ote dutenaren susmoa dut.

Erlijio gehienek ezagutzen dute barau egitea, eta izpirituaren, norberaren izaeraren, ezagupide eta perfekzioaren, inguruan zein norberarengan ditugun arazoen hausnarketarako bide bezala proposatzen dute. Baina aspaldiko fariseo haiek erritoarekin bete eta dena egina zutela uste zuten bezala, gaur eguneko etekinik gabeko barauak, helbururik gabekoak, nahiko nituzke salatu.

Horren aurrean, beste barau klase baterako gonbidapena irakurri dut egunkarian. Norberaren barrura eragiteaz gain gizartearengan ere erreflexioa sortu nahiko lukeena. Eta hara non aspaldiko barau egitea egoera larri bat, onartezina, denon aurrean salatzeko, pentsarazteko, era baketsuan gizarteratzeko erabiliko den. Eta barau hau, horrela, bere osotasunean azaldua, errituatetik at dagoela eta gizartearen beharrekin bat egiten duela aurkitu dut. Baraualdi hau eraginkorra izango dela ez izan dudarik, bat egin berarekin zure bizitza normalean, etxean... eta ikusiko duzu!!

**Jose Angel MIKEO**



## Zigorra

Lerro hauek idazten dihardudan bitartean Herri Batasunaren Mahai Nazionaleko kideen kontrako epaiaren zain bagaude ere, hainbat komunikabidek, kazetari eta ustezko adituk zigorra sei urtekoa izango dela dioskue. Hiru epaileek tutik esan ez badute ere, haien inguruan mugitzen diren hainbat "iturri ez-ofizialek" aipatutako zigorra baieztatu egin dute, Euskal Herriko bazter guztiak astinduz eta hainbeste euskaldunen artean ezinegona zabalduz.

Zigorra goian aipatutakoa izango balitz, Floren Aoiz mahaikideak eskatutakoari -"etzazue pake ekintza bat zigortu"- Epaitegi Goreneko hiru epaileek uko egin eta buruzagi abertzaleak espetxeratzea erabaki badute, egoera politiko berri baten atarian geundekelakoan nago, azken hilabeteotan entzun eta susmatu diren zenbait mugimendu itxaropentsu erabat autsiz.

Pake keinu bat eskatu zien Aoizek epaileei eta -filtrazioak benetakoak badira- guda deklarazio batekin erantzun diote. Hitza erreibindikatu zuten mahaikideek Madrilen eta espetxearekin erantzun diete. Egoera triste honi irtenbidea ematea aldarrikatu zuten, eta Madrilen agintzen dutenek kartzelako ateak itxiz erantzun diete.

Europako epaitegietaraino irtitsiko da kasua eta, aurreko batean bezala, Espainiar Erresumak galduko du, segurú, baina bitartean abertzaleen buruzagien espetxeratzearekin hemen gauzak gogortu eta okertu egingo direla esatea ez da ez mehatxu eta ez astakeria. Datorkigunaren konstatazioa besterik ez. Zoritxarrez.

**Martin GARITANO**


**Abenduan, aukera zabala Jam aretoan...**

| | |
|---|---|
| 5, ostirala: | Agnostic Front + Maximun Penalty + Vision + Morning Again + Redshift |
| 6, larunbata: | Clawfinger + One minute silence |
| 13, larunbata: | Kreator + Dimmu borgir + Crisium |
| 19, ostirala: | D.J. Oscar Mulero |
| 20, larunbata: | Moonspell |
| 24, asteazkena: | D.J. Anggel + D.J. Berasa + D.J. Fer + Euskaraokea + La Parranda |
| 26, ostirala: | Xabier Montoia + Chucho + Zein |
| 27, larunbata: | Su ta gar taldearen disko berriaren aurkezpena |
| 30, asteartea: | Extra aldizkariaren kirolariei sari banaketa |




Orain, gainera, Jam aretoan zure musika-gustuen arabera zure lekua izateko aukera izango duzu!

Jam



## Elorregi Peñaren afaria

**Elorregi Peñako txirrinduzaleek** denboraldi amaierako afaria egin zuten San Prudentzioko elkartean joan zen azaroaren 14an. Afarian 24 lagun bildu ziren eta afalostean izango zuten bai denboraldiko kontuak gogoratzeko tartea. Elorregi Peñakoek **erloju bana** oparitu zieten afarira etorritako txirrindulariei. Erlojuz kontrako probetan finago aritzeko edo... Argazkian, Elorregi Peñako kideak **Iñigo Chaurreau** (Euskadi taldekoa), **Alvaro Gonzalez Galdeano** (Euskadi), **Jon Odriozola** (Banesto), **Ramon Gonzalez Arrieta** (Euskadi) eta **Iñigo Gonzalez Heredia** (Vitalicio) txirrindulariekin. Elorregi Peñak hainbat lasterketa (Tourra, Euskal Bizikleta edota Euskadiko Itzulia tartean) ikustera joateko irteerak antolatzen ditu urtean zehar. Laister hauek ere denboraldia prestatzeari ekin beharko diote...



ANE BENGOA

## Haurdunaldiaren ondoren elkarrekin

**Haurdunaldian gimnasiako klaseetan elkarrekin** ibilitako emakume talde batek **merienda** egin zuen urriaren azkenaldera Espoloiko Zuhaizti tabernan. Erditzeko gertatzen ari zirela, gimnasia klaseetan giro bikaina izan zuten eta ondoren elkarren berri izateko geratu ziren. Gehienak **ekainean eta uztailean** igaro ziren amaetxetik eta orain harro-harro ditugu euren seme-alabekin. Horra hor argazkian agertzen diren amak, ezkerretik eskumara (parentesi artean bakoitzaren seme/alabaren izena): zutik, **Isabel Sanchez** (Ibai Lizeaga), **Jone Olabarria** (Santi Franco), **Nekane Berasategi** (Unai Kortabarria), **Beatriz Marquez** (Alexander Alferez), **Mariasun Irazola** (Maddi Garcia), **Mentxu Irizar** (Christian Rodriguez), **Maite Arregi** (Nerea Larrañaga), **Sonia Aizpurua** (Jon Durana) eta **Argiñe Fernandez** (Jon Abad); jarrita, **Kontxi Unamuno** (Aritz Rodrigo), **Maite Lazpiur** (Asier Lakuntza), **Ane Bengoa** (Iker eta Iosu Gorriti), **Josune Zufiria** (Amaiur Olalde), **Nekane Soraluze** (Antton Esnaola), **Maria Jesus Ferreiro** (Sara Gonzalez) eta **Elsa Manso** (Iosu Zalakain). Zorionak guztioi!!

KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

## Auto kontzesionario berria



oan zen eguakitzean **Talleres Meca-enault** etxeak Bergaran zabaldu duen **ntzesionario berria** inauguratu zen Amillagan. Jende dexente bildu zen bertan eta, ohizko bedeinkapena eta urkezpena egin ondoren, bertaratuek instalazio berriak ezagutzeko aukera izan zuten. Era berean, Renault **Kangoo** modeloa aurkeztu zen, ondoren luntxa banatuz. Zorionak Mecakoei estreinaldiagatik!!



## Bandari agur

**Udal Musika Bandak Santa Zezilia, musikarien zaindarien eguna**, ospatu zuen domekan. Herriko kaleetan zehar **kalejira** egin ondoren, eguerdian **kontzertua** eskeini zuen Bandak Novedades aretoan. Aretoa jendez gainezka egon zen eta ikusleek erabat gozatu zuten bertan eskainitako piezekin eta bereziki **"Evita" filmeko soinu bandaren** estreinatuarekin. Kontzertuaren ostean bazkaria izan zen Azpeitxi jatetxean eta bazkalostean, Banda laga duten **Francisco Garcia** eta **Luchi Garcia** klarinetejoleei (argazkian aita-alabak) **Bandaren insiginia** entregatu zitzaien. Ikasketengatik taldea laga duen **Ainhoa Amasorrainek** ere Bandaren insignia jasoko du.

## Martin Linazisoro gogoan



Eguakitzean zabaldu zen **Kultur Etxean Martin Linazisoro zenaren oroimenezko eskultura erakusketa**. Martin Linazisoro Simon **Arrieta zeramika taldeko** partaidea zen eta bere taldekideek Martinen lanak biltzen dituen erakusketa antolatu dute. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, **Maria Antonia Ugarte**, Martinen alarguna, hauen seme-alabak, **Victoriano Gallastegi** alkatea edota Simon Arrieta taldeko kideak izan ziren. Jende ugari bildu zen Kultur Etxeko erakustokian. Linazisororen **30 eskultura** (gehienak heritar ezagunen bustoak) domekara arte egongo dira ikusgai.

# Zertan *dihardute* ba?



**Mikel Larrañaga** izango da Lokatza taldeko presidente berria, Jesus Kortabarria "Kaxeta" ordezkatuz. Kortabarriak 1988tik zeraman presidente postuan. Mikel Larrañagarekin batera, "Kaxeta" bera (presidenteordea), Vicente De Dios (diruzaina) eta Jose Mari Gabilondo, Pello Garitano eta Juan Mari Aranzabal (bokalak) izango dira zuzendaritzan. Lau talde izango ditu Lokatzak datorren denboraldian: jubenila, lehen eta bigarren urteko kadeteak eta infantila. Guztira 30 bat txirrindulari izango dira taldean.

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorentzo, 25 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# *Mila Palacios*

**Oñatiarra jaiotzez, Koldo Lasaren emazteak maitre lanak betetzen ditu Lasa jatetxean 1994tik, jatetxea Ozaeta Jauregian kokatu zenetik. Bertara hurbiltzen diren bezeroei gustora jateko beharrezko gomendioak ematen dizkie. Hiru seme dituzte.**



**- Sukaldari ona zara?**
- Ez, ez dut asko jarduten...
**- Etxean nork prestatzen du bazkaria?**
- Koldok.
**- Zure espezialitatea?**
- Tortillak.
**- Arraina ala haragia?**
- Arraina.
**- Platerrik gustokoena?**
- Erreboiloa.
**- Jan ezin duzun beste bat?**
- Ehiza, oilagorra.
**- Ardoa ala ura?**
- Ardoa, beltza, Errioxakoa.
**- Gozozalea zara?**
- Bai.
**- Postre bat?**
- Sasoi honetan turroiak.
**- Dietarik egiten duzu?**
- Ez, komeni bai, baina...
**- Atzerriko sukaldaritza bat?**
- Frantziarra.
**- Telebistako sukaldaritza saioak jarraitzen dituzu?**
- Ez, ez daukat denborarik...
**- Laneko gauzarik onena?**
- Jendearekin tratua.
**- Eta txarrena?**
- Ordutegia.
**- Jendeari gustatzen zaio zer jan gomendatzea?**
- Bai, gustatzen zaio platerrei buruzko gauzak galdetzea.
**- Zuen jatetxean egon diren pertsona ezagunetatik, zein destakatuko zenuke?**
- Indurain beharbada, oso apala da.
**- Aranzabalek Lasan sinatu zuen kontratu berria?**
- Nik uste dut hemen heldu zirela akordio batera.
**- Zenbateko garrantzia daukate harreman publikoek zuen lanean?**
- 0tik 10era, 10 esango nuke.
**- Zenbat hizkuntza dakizkizu?**
- Gaztelera eta euskara.
**- Urteko zein sasoitan bezero gehien?**
- Udaberri aldera, ezkontzengatik.
**- Etxeko lanik gorrotagarriena?**
- Plantxa.
**- Filme bat?**
- "El club de los poetas muertos".
**- Animalia bat?**
- Zaldia edo txakurra.
**- Hobby bat?**
- Bidaiatzea.
**- Nora egingo zenuke bidaia bat?**
- Eskandinabiara.

***"Ez naiz sukaldari ona, ez baitut sukaldean asko jarduten. Gozozalea naiz eta sasoi honetan turroiak ditut gustoko. Filme bat? 'El club de los poetas muertos'"***


POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



LAGUN ARO
ASEGURUAK
RAC
VASCO NAVARRO
AGENTEA-DELEGATUA
Ramon Iraegi Eguren
Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

## ETXEBIZITZA

**Garajea** salgai Martokon. ☎ 76 00 51.

**Lokala** salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m2. ☎ 76 11 89.

**Garaje** bikoitza alokairuan Torrekoan. ☎ 76 30 32.

**Pisua** alokairuan Bidekurutzeta 14an. ☎ 76 36 99.

**Pisu** eguzkitsua salgai Matxiategin. ☎ 76 40 99.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 63 10 (gauez).

**Garajea** salgai Martokon. ☎ 76 35 50.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauez).

**Pisu** txiki bat hartuko nuke alokairuan herri erdian. ☎ 907 36 32 98.

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 78 36 65 (20:00etatik 22:00etara deitu).

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 41 16.

**Etxea** alokairuan Antzuolan. ☎ 76 64 24.

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

## DENETARIK

**Andregai** jantzia saltzen dut. ☎ 76 26 70.

**Hozkailu** berria salgai. Egoera onean. ☎ 76 70 86.

**Suzuki** GSX 600 F motorra egoera onean salgai. ☎ 76 25 61.

**Artzai** txakurrak saltzen ditut. Prezio interesgarria. ☎ 76 52 21.

**Yorkshire** txakurkumea salgai. ☎ 76 18 96.

**Kanowey** motorra saltzen dut. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 24 57.

**Haur** baten txamarra koadroduna galdu da Frontoi inguruan. ☎ 76 17 42.

**Estufa japoniarra** salgai. Haundia eta prezio onean. ☎ 76 47 82 (Ana).

**Setter** txakurrak salgai. ☎ 78 71 67.

**Taberna** traspasatzen da Elgoibarren. ☎ 74 00 16.

**Eskalada** egiteko katuoinak saltzen ditut. ☎ 76 50 22 (asteburuan) edo (948) 27 11 82 (Noelia).

**"Moncayo"** karabana salgai. ☎ 76 38 26.

## LANA

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 09.

**Gaztetxoei** marrazketa librean laguntzeko prest nago. ☎ 76 34 83.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Andre** batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egiten ditu. ☎ 76 00 90.

**Ileapaindegi** batean lan egiteko esperientziadun neska behar da. ☎ 76 56 69.

**OHO** eta DBH klaseak Antzuolan. ☎ 78 71 32.

**Etxeko** garbiketak egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 53 88 (Rosa).

**Mate,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Tabernari** euskaldunak behar dira. ☎ 79 11 25.

**Helduak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke astebukaeran. ☎ 76 56 66.

**Lizentziatu** batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

**Neska** batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 56 66.

**Administratibo** lanerako titulodun neska eskeintzen da. ☎ 907 94 06 67.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.

**Mate,** fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

**OHO** eta BBB klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.



ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Matxiategi Elektragintza C.B.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
• AROZLAN MEKANIKOAK
• SUKALDEKO ARMAIRUAK
• HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK, etab.
• TARIMAK-PARKETAK
• NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
• PVCzko LEIHOAK
Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Rakel Cerdeira

**Rakel Cerdeira**k jaso du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderaren erantzuna berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen etxearen izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Agirrebeña Etxea** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Rakel Cerdeira**ri egokitu zaizkio. Zorionak!!

***Zein da harraska edo garbitegi honen ondoan dagoen egoitza?***

________________________________________

**Izena:** ____________ **Abizena:** ____________ **Tfnoa:** ____________

**Saria**
**10.000 PTA**

**Moztu paper hau eta**
**ekarri astebete baino lehen**

**BERRIGARA**
**Errotalde Jauregia Bergara**

# BERGARAKO osasun gida

| | | |
|---|---|---|
| **ALBAITARIAK:** | | |
| • ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19 | Zurradero, 6 behea | ☎ 76 70 67 |
| • ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • IRASTORZA BENGOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK) | Iribar baserria ANTZUOLA | ☎ 76 63 46 |
| • NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47 | Koldo Eleizalde, 28 | ☎ 76 27 97 |
| **ANALISI KLINIKOAK:** | | |
| • LABORRA ISABEL | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |
| **BARNE MEDIKUNTZA:** | | |
| • IRIGOYEN VICTOR | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |
| **DENTISTAK:** | | |
| • ASTIAZARAN SOLOZABAL | Iparragirre, 1 behea | ☎ 76 27 95 |
| • BERGARA HAGIN KLINIKA | Bidekurutzeta 6, 2 | ☎ 76 05 77 |
| • GOROSABEL J. ALBERTO | Fraiskozuri, 5 behea | ☎ 76 56 88 |
| • IRIARTE IDOIA | Artekale 1, 1. C | ☎ 76 01 65 |
| • GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. | S. Arrieta 3, 2. B | ☎ 76 38 54 |
| **DERMATOLOGOA:** | | |
| • GARCIANDIA CRISTINA | Ramon Maria Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |
| **FISIOTERAPEUTAK:** | | |
| • ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL) | Artekalea 1, 1H | ☎ 76 43 71 |
| **GINEKOLOGOA:** | | |
| • SERRANO DOKTOREA | Ramon María Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |
| **MASAILARIAK:** | | |
| • AGIRREZABAL JOSE JABIER | Boni Laskurain 1, 2. A | ☎ 76 15 74 |
| • AZPEITIA IRUNE | Agorrosingo igerilekuak | ☎ 76 20 51 |
| • CASANELLAS JABIER | Boni Laskurain 5, 2. E | ☎ 76 03 78 |
| • PAYROS AITZIBER | Bidekurutzeta, 46 behea | ☎ 76 52 62 |
| • ETXEBERRIA ANA | Errekalde, 6 behea, ANTZUOLA | ☎ 76 60 13 |
| **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** | | |
| • BENITO ISABEL | Bidekurutzeta 46, behea | ☎ 76 52 62 |
| **MEDIKUNTZA OROKORRA:** | | |
| • OXIRONDO KONTSULTATEGIA | Boni Laskurain 2, behea | ☎ 76 20 50 |
| **OTORRINOLARINGOLOGIA:** | | |
| • IGARTUA JULIAN | Barrenkalea 35, 1. ezkerra | ☎ 76 70 91 |
| **PEDAGOGOAK:** | | |
| • IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOJIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | Simon Arrieta 3, 2. E | ☎ 76 26 42 |
| **PODOLOGOAK:** | | |
| • ALTUBE EDURNE | Simon Arrieta, 2 | ☎ 76 07 84 |
| • AZPIAZU ARANTZAZU | Herri Lagunak, z/g. | ☎ 76 41 32 |
| **PSIKIATRA:** | | |
| • GALLASTEGI PABLO | San Martin Plaza 2, 1. ezkerra | ☎ 76 26 64 |
| **PSIKOLOGOAK:** | | |
| • PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | | ☎ 76 14 80 |
| • URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 53 13 |
| • ZUBILLAGA ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 30 76 |
| • FERNANDEZ J.R. | Ramon Maria Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |
| **REUMATOLOGIA:** | | |
| • MORAGUES CARMEN | Ramon Maria Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |


Kangoo
Express
Kangoo
Bergaran zabaldu berri den MECAn duzu zure esku.
MECA TAILERRA
Amillaga 5
BERGARA
Tf. 76 40 68
RENAULT

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

## Lehen maila

| TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Mongatxurrak | 20 | 9 | 28 | 14 |
| 2. Errotagain | 19 | 8 | 26 | 11 |
| 3. A Ze Flaxa Etxagi | 18 | 9 | 27 | 15 |
| 4. Pagomendi | 16 | 9 | 48 | 25 |
| 5. Bar Canalejas | 14 | 9 | 31 | 31 |
| 6. Etxagi | 12 | 9 | 29 | 24 |
| 7. Azpeitxi Jatetxea | 11 | 9 | 28 | 31 |
| 8. Bildurbarek Opel/Lam | 9 | 9 | 21 | 31 |
| 9. Aginaspi | 9 | 9 | 25 | 41 |
| 10. Jauja OH Zerezos | 7* | 9 | 26 | 40 |
| 11. Arloteak/Oilagorra | 6 | 9 | 11 | 22 |
| 12. Ortzi | 4 | 8 | 11 | 26 |

## A multzoa

| TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Ezinleike | 21 | 9 | 65 | 28 |
| 2. Agirrebeña Jatetxea | 21 | 9 | 46 | 19 |
| 3. Manitou | 19* | 9 | 63 | 10 |
| 4. Shaktale | 19 | 9 | 41 | 11 |
| 5. Moskis | 16 | 9 | 34 | 28 |
| 6. Mrw | 13 | 9 | 33 | 30 |
| 7. Indargorri | 11 | 9 | 31 | 28 |
| 8. Aldoka Maldoka | 11 | 9 | 19 | 29 |
| 9. Ganbara Ari Ari | 10* | 9 | 21 | 23 |
| 10. Igandekoak | 3* | 9 | 29 | 48 |
| 11. Polideportivo Taberna | 3 | 9 | 22 | 67 |
| 12. Kaixo | 0 | 9 | 10 | 103 |

## B multzoa

| TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Artusamak | 21 | 8 | 49 | 18 |
| 2. Slo | 21 | 8 | 38 | 20 |
| 3. Amozkibar | 16 | 8 | 28 | 25 |
| 4. Bayer | 15 | 8 | 29 | 25 |
| 5. Autoberezi | 13 | 8 | 37 | 41 |
| 6. Jakina PT | 12 | 9 | 35 | 30 |
| 7. Uve Bikoitza | 12 | 8 | 31 | 25 |
| 8. Usoa | 9 | 8 | 30 | 38 |
| 9. Erdibiterrak | 5 | 8 | 25 | 33 |
| 10. Txipiron | 4 | 9 | 13 | 40 |
| 11. Amilotx | 1* | 8 | 13 | 33 |

## C multzoa

| TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Guadalest | 21 | 9 | 35 | 22 |
| 2. Fac | 21 | 8 | 49 | 17 |
| 3. La Juve | 19 | 8 | 27 | 11 |
| 4. Matxakategi | 15 | 8 | 20 | 24 |
| 5. Ufala | 12 | 8 | 24 | 27 |
| 6. Bar Ganbara | 10 | 8 | 30 | 22 |
| 7. Eri Sirimiri | 10 | 8 | 22 | 24 |
| 8. Etengabe | 7 | 8 | 14 | 22 |
| 9. La Peña DML | 6* | 8 | 25 | 30 |
| 10. Komando Piperrak | 6 | 8 | 18 | 32 |
| 11. Patatus | 0* | 9 | 23 | 56 |

* Karnetak ez entregatzearren puntuak kendu zaizkio.

## Jokoz kanpo



**Xabier Albisua**
***ERROTAGAIN***

**ZER MODUZ TXAPELKETAN?**
Nahiko gaizki hasi ginen; baina orain aurreko postuetan gaude, partidu bat gutxiago jokatu arren.

**TXAPELKETA IRABAZTEKO AUKERARIK BADUZUE?**
Zaila izango da, baina irabazteko aukera badugula uste dut.

**ZEINTZU IZANGO DIRA ARERIORIK NAGUSIENAK?**
Manitou, A Ze Flaxa Etxagi eta Bar Canalejas.

**TXAPELKETAREN MAILA GORANTZ DOA ALA BERDIN JARRAITZEN DU?**
Azkenengo bi urteetan maila beretsuan gaudela uste dut.

**ARBITRAIEKIN GUSTORA?**
Jendeak arauak ikasi egin behar ditu, baina bestela ez dago arazo larririk.

**ANTOLAKETA BATZORDETIK BEGIRATUTA, ZELA IKUSTEN DUZU TXAPELKETA?**
Antolaketa batzordea laga egin dut. Arbitratzerako orduan eta partiduen orduak jartzerakoan talde guztiak berdinak izan beharko ginateke; orain, tamalez, ez da horrela gertatzen.

**TXAPELKETAKO JOKALARIRIK ONENA?**
Aitor Anton.

**REALA UEFARAKO SAILKATUKO DA?**
Ez dakit baina Athleticen aurretik, behintzat, bai.

**MUNDIALA ZEINEK IRABAZIKO DU?**
Brasilek, Espainiak edo Alemaniak.

## ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Mongatxurrak-Jauja OH Zerezos | 2-1 |
| Arloteak/Oilagorra-Bar Canalejas | 2-2 |
| Pagomendi-Ortzi | 4-2 |
| Etxagi-Bildurbarek Opel/Lam | 5-2 |
| Errotagain-Azpeitxi Jatetxea | 4-0 |
| A Ze Flaxa Etxagi-Aginaspi | 4-0 |
| Kaixo-Indargorri | 0-11 |
| Igandekoak-Polideportivo Taberna | 8-4 |
| Shaktale-Agirrebeña Jatetxea | 4-2 |
| Moskis-Ganbara Ari Ari | 2-1 |
| Aldoka Maldoka-Ezinleike | 0-3 |
| Manitou-Mrw | 6-2 |
| Uve Bikoitza-Txipiron | 9-1 |
| Amilotx-Usoa | 1-9 |
| Bayer-Artusamak | 1-6 |
| Amozkibar-Erdibiterrak | 5-5 |
| Jakina PT-Slo | 2-4 |
| La Peña DML-Patatus | 9-4 |
| Etengabe-Komando Piperrak | 2-3 |
| Fac-Ufala | 6-4 |
| Matxakategi-Bar Ganbara | 2-1 |
| Guadalest-Eri Sirimiri | 5-3 |

## ■ PARTIDUAK

**Zapatuan barruan**

**09:00:** Amilotx-Artusamak • **MRW**
**10:00:** MRW-Aldoka Maldoka • **Amilotx**
**18:00:** Ufala-Etengabe • **Azpeitxi Jatetxea**
**19:00:** Azpeitxi Jatetxea-Etxagi • **Pagomendi**
**20:00:** Bildurbarek Opel/Lam-Pagomendi • **Etxagi**

**Domekan barruan**

**09:00:** Komando Piperrak-Pa Peña DML • **Bayer**
**10:00:** Erdibiterrak-Bayer • **Slo**
**11:00:** Slo-Amozkibar • **Arloteak/Oilagorra**
**12:00:** Ortzi-Arloteak/Oilagorra • **Errotagain**
**13:00:** Aginaspi-Errotagain • **Ortzi**
**16:00:** Bar Ganbara-Fac • **Mongatxurrak**
**17:00:** Bar Canalejas-Mongatxurrak • **Guadalest**
**18:00:** La Juve-Guadalest • **Eri**
**19:00:** Eri-Matxakategi • **Jakina PT**
**20:00:** Autoberezi-Jakina PT • **Matxakategi**

**Domekan kanpoan**

**11:00:** Ezinleike-Moskis • **Shaktale**
**12:00:** Ganbara Ari Ari-Shaktale • **Kaixo**
**13:00:** Polideportivo Taberna-Kaixo • **Ganbara Ari Ari**
**16:00:** Manitou-Indargorri • **Agirrebeña Jatetxea**
**17:00:** Agirrebeña Jatetxea-Igandekoak • **Indargorri**

## Txinpartak

### Herrien arteko olinpiadak

Deba Garaiko herrien arteko olinpiadan parte hartzeko epea abenduaren 19an bukatzen da. Bergarako hiru taldek izango dute txapelketan parte hartzeko aukera eta taldeko 14 jokalarik eman ahal izango du izena. Txapelketa abenduaren 26tik 30era bitartean jokatuko da. Talde bakoitzak 4.000 PTA ordaindu beharko ditu.

### Igeriketa ikastaro berriak

Udal kirol zerbitzuak datorren urterako igeriketa ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du. Aurten elbarritu fisiko eta psikikoendako ikastaroak ere antolatu dituzte. Informazio gehiago Udal Kirol Zerbitzuan.

# Kirolarientzako azterketa medikuak egiteko zerbitzua

**Kirolarientzako** azterketa medikuak egiteko zerbitzua jarriko du martxan datorren urtean Udal kirol zerbitzuak. Zerbitzua Udal biltegiko gela batean jarriko da eta zerbitzuaren kostuari Oñatiko Udalarekin batera egingo dio aurre.

Azterketa medikuak bi motatakoak izango dira: oinarrizkoa eta esfortzu froga. Oraindik zerbitzuaren prezioa eta ordutegiak zehaztu barik daude, baina 3.000 PTAtik 7.000 PTAra bitartean izango dira. Kirol zerbitzuko bazkide direnentzat eta herriko talde federatuentzat beherapenak izango dira. Zerbitzuaren ordutegia eta egunak, eskaeren arabera zehaztuko dira.

Zerbitzua eskaintzeko Udalak bizikleta ergometriko bat, kamila, pisua eta podometro bat erosiko ditu. Zerbitzua Mankomunitateko kirol zerbitzuek bultzatu dute eta hasieran Oñatiko eta Bergarako Udalak sartu dira proiektuan. Eskoriatzako Udala ere proiektuan sartzeko prest ei dago eta Arrasaten dagoeneko zerbitzua martxan dago. Arrasaten urtean 880 errekonozimendu egiten dira eta Eibarren, berriz, 1.100. Zerbitzu medikua uda baino lehen martxan jartzeko asmoa dute eta adjudikazioa deialdi publikoaren bitartez egingo da.



Kirola egiten dutenek azterketa medikuak egiteko aukera izango dute.



## Maratoilari bergararrak

13 bergarar izan ziren joan zen domekan jokatutako Donostiako maratoian. Horien artean denborarik onena Basilio Aranburuk lortu zuen 2 ordu 34 minutu eta 55 segunduko markarekin. Azpimarratzekoa da korrikalari guztiek egin zuten lan bikaina, guztiek egin baitzuten 4 orduz azpitik eta 5 korrikalarik (Basilio Aranburu, Roberto Zurro, Jabier Moreno, Aitor Eraña eta Aitor Rementeriak) 3 ordutik beherako denbora behar izan zuten 42 kmak egiteko. Bixente Pagaldaik ere ez zuen huts egin; angiozartarra Donostiako maratoi guztiak egin dituen korrikalari bakarra da. Antzuolarrak ere fin aritu ziren eta Xabier Azkarate 2 ordu 27 minutu eta 23 segunduko denborarekin Gipuzkoako bigarren eta lasterketako 13. postuan sailkatu zen. Argazkian Bergaratik joandako korrikalari talde bat Diego Garciarekin ikus dezakezue.

## KARTELDEGIA

FUTBOLA

♦ **Bergara-Segura**
Lehen mailako erregionala.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

♦ **Bergara-Antoniano**
Neskak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

♦ **Bergara-Idiazabal**
Lehen mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

♦ **Bergara-Aloña Mendi**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 16:30.
Labegaraieta kiroldegia.

PILOTA

**Profesionak:**

♦ **Urionaguena eta Arroio II**
**Koka eta Mendia**

♦ **Goñi II eta Errandonea**
**Olaizola eta Errasti**

♦ **Salaberria eta Berna**
**Etxaniz eta Armendariz**
*Zapatua. 16:30.*
*Udal Pilotalekua.*

**Afiionatuak:**

♦ **Bergara-Billabona**
Junior banaka.

♦ **Bergara-Usurbil**
Junior binaka.

♦ **Bergara-Amezketa**
Senior binaka.
*Gipuzkoako kluben arteko finalak Elgetan.*
*Zapatua. 16:30.*

♦ **Lasagabaster-Belategi**
♦ **Redondo-Lazkano**
♦ **Bengoa-Gesalaga**
♦ **Eraña-Oion**
*Baque torneoa.*
*Udal Pilotalekua.*
*Martitzena. 19:00.*

ESKOLA ARTEKO FUTBITOA

♦ **Mariaren Lagundia**
**Aranzadi 202**
Zapatua. 11:00.

♦ **Ipintza A2**
**Los chicos de Altuna**
Zapatua. 12:00.

♦ **Aranzadi 203**
**Aranzadi 201**
Zapatua. 12:00.
*Denak Miguel Altuna berrian.*

# Erika Arteaga

## Euskadiko eskubaloi selekzioan

**Erika Arteagak BKEko kadete mailako eskubaloi taldean jokatzen du. Udan Euskadiko selekzioarekin izan zen Asturiasen jokatutako txapelketa batean. Lateral postuan jokatzen du eta golak egiteko erraztasun ikaragarria du.**

**- Zergatik hasi zinen eskubaloian jokatzen?**

- 10 urterekin amak apuntatu ninduen eta gustatu egin zitzaidan eta oraindik hor dihardut.

**- Zer moduz hasi duzue denboraldia?**

- Ondo. Lehenengo partidua Elgoibarren kontra galdu egin genuen eta jokatu ditugun beste 5 partiduak irabazi egin ditugu. Gainera Zestoaren kontra 40 eta 3 irabazi genuen. Partidu horretan 14 gol sartu nituen.

**- Udan Euskadiko selekzioarekin astebete Asturiasen izan zinen. Esperientzia polita izango zen, ezta?**

- Bai. Halere Euskadiko selekziora joan baino lehen Deba bailarako teknifikazio eskolan ibili nintzen bailarako beste neska batzuekin batera. Hortik proba batzuk egin genituen eta selekziora joateko esan zidaten. Txapelketan oso maila handia zegoen. Madril, Errioxa, Asturias, Nafarroa eta Castilla-Leoneko selekzioen kontra jokatu genuen eta hirugarren postuan bukatu genuen. Oso giro ona genuen taldean eta lagun asko egin nituen.

**- Zer nahiago duzu, erasoan edo defentsan jokatzea?**

- Erasoan, defentsa zailagoa da. Erasoan laguntza gehiago izaten da eta nahigo dut.

**- Asko lantzen dituzue jokaldiak?**

- Batzuk bai. Aurrean daukagun defentsaren arabera taktika bat edo beste bat jarraitzen dugu. Sistema asko aldatzen dugu.

**- Euskadiko selekzioaren beste partiduren bat jokatuko duzu?**

- Aurten oso zaila izango da selekziora joatea. Joan zen urtean infantiletan nenbilen 2. urtea zen eta aurten kadete mailan lehenengo urtea da. Bigarren urtekoek maila handiagoa dute, eta oso zaila izango da jokatzea. Teknifikazio eskolan jarraitzea espero dut.

**- Partiduko zenbat gol sartzen dituzu?**

- Partidu batean 14 sartu nituen, baina normalean 5 edo 6 gol sartzen ditut.

**- Penaltiak sartzeko sekretua zein da?**

- Atezainari ez diot begietara begiratzen eta nerbioak ere kontrolatu behar dira.

**- Gehien gustatzen zaizun jokalaria?**

- Dujshebaev eta Tomas Svensson.



Zestoaren aurka 14 gol sartu zituen Erikak.

## "Penaltietan atezainari ez diot begietara begiratzen"



Argazkia: Marcial Moreno

# Udaltzain emakumeak, 1977

Bergarako emakumezko udaltzainak ekarri ditugu oraingoan Erretratu zaharrera. Argazkia 1977ko uztailekoa da, lanean hasi zirenean ateratakoa, orain dela 20 urtekoa. Marcial Moreno orduko berriemaleak laga digu.

Lurdes Bastida eta Angela Rodriguez orain dela hogei urte lanean hasi zirenean denon ahotan ibili ziren, orduan ez baitzen normala emakumezkoak udaltzain lanetan ikustea. Bergarako lehen emakume udaltzainak izan ziren eta harrez gero ez da emakumezkorik sartu lan hori egiteko.

Hogei urte hauetako hamaika anekdota izango dituzte kontatzeko, batez ere lanean hasi zirenean gertatutakoak. Argazkian dotore asko ikusi ditzakegu, orain modan dauden plataformadun zapatekin, bonbin itxurako burukoarekin eta gonekin. Gaur egun prakekin ibiltzen dira, euren lankide gizonezkoen moduan. Nola aldatzen diren gauzak.

Industria hornikuntzak
U UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!
San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

# Automobil aseguruak

**Mapfre abantailak**




**Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**MAPFRE**
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



*Kafé*



Irala 10. Telefonoa 76 71 22.

Gosariak, meriendak, pintxoak, kopak eta...

**Asteburuetan, gaueko 12etatik aurrera:**

Oilasko erreak!



# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

**FAGOR**

**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak:
San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.
Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91